

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Txinako Ezpeleta

ETXE KONTRAKO PAISAIAN zuhaitz eta arbola negartziz osatutako jauzia, aldaparen beheko barreneko muturrean aldatutako *Davidia involucreta* zuhaitzean amaitzen da. Honek goiko aldean dituen mainontzi guztien malkoak jaso eta xukatzen ditu. Ez da alferrik mukizapien zuhaitza (ingelesentzat *handkerchief tree* edo *pocket-handkerchief tree*, frantsesentzat *arbre aux mouchoirs*, espainolentzat *árbol de los pañuelos*, alemanentzat *Taschentuchbaum*...). Izen xeble haur bere loreari zor dio. Maiatza aldera loreak multzoka irekitzen dira eta hauetako bakoitzak braktea pare ederra du. Mutur batetik zintzilikatutako arra beteko mukizapi zurizta batek hartuko lukeen itxura du braktea, baita joera ere: haizearen menturan jira-biraka hegan egiten du. Hegalaldi honek beste izen berezi bat ere eman dio zuhaitz honi: ingelesezko *dove tree*, usoen zuhaitza, alegia.

Makina bat zeresan sortu du zuhaitz honek azken bi mendeotan botanikarien artean: Cornaceae, Nysaceae edo Davidiaceae familietan sailkatzeko saltsa ez da oraindik behar bezala ondu, gaur egun gehienek aurrenekoartzat jotzen badute ere. 1826an Lapurdiko Ezpeletako Bergara etxean sortutako Jean Pierre Armand David Halsouet apaiz lazarista misiolariak Txinan topatu zuen. Zuhaitz honekin batera panda hartza, orein inperiala, urre-tximino sudurmotza eta beste espezie franko topatu zituen. Naturazale amorratua, misio lanak alde batera utzi eta Parisiko Natur Historiako Museoaren aginduetara jardun zuen. XIX. mendeko Europa eta Ameriketako ikerlari gosetien aldra nahikoa langaiz hornitu zuen eta ondorioz bere



WWW.ASPERUPGAARD.DK

omenezko *davidii* edo *armandii* abizena darama espezie ugari. Abizenaren orde izena, *Davidia*, du ohore mukizapien zuhaitzak.

Davidia bezala, ederki asko doakio bai mukizapien zuhaitza izena. Loretzarren itxuragatik, baina baita urzalea delako ere, direnak eta ez direnak xukatuko lituzke... Tartekako ura du, ordea, gustuko. Etengabe urasetuta izaten diren buztin edo tupa lurretan, istinga edo zingira tankerakoetan, ez aldatu gero. Bestela zeuk astindu beharko duzu mukizapia, erail duzula jabetutakoan.

● Armand Davidi buruz areago jakin nahi duenarentzat, Kepa Altonagak idatzitako *Armand David, pandaren aita* (Elhuyar, 2001) liburua paregabea da.



JAKOBA ERREKONDO

Tomate sasoia

Egutera, eguzkilekua, eguzki-begia, eguzbegi, iruzkipei, iruzpei, eki-jalkigaia, ekisargi edo eguzkitsu den edozein bazterretan tomatea, *Lycopersicon esculentum*, ederto etorriko da. Hormaren kontra eta ontzian egoteak izugarri lagunduko dio gaitzei aurre egiten, inguru guztia, lurra eta airea, lehor eta bero izango baitu. Lehor eta beroan gaitzak sortzen dituzten onddoek elorri izango dute. Segurako Mendotza baserriko hauek duten itxurari erreparatu.